

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

### Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure produktuak arrakasta izan dezan ezinbestekoa dugu funtsezko baliabide batzuk aurrera eramatea. Hauek, lau taldetan banatzen dira nagusiki, baina bata ez da bestea baino garrantzitsuagoa izango; hau da, gure botila lantzeko denak garrantzia bera izango dute.

Batetik, baliabide fisikoak dauzkagu, non behar-beharrezkoak izango ditugun gure produktua lantzerako orduan. Esaterako, lanerako lokala, produktua lantzeko eta egiteko materiala, ordenagailua eta mugikorra.

Produktua lantzeko espazio apropos bat beharko dugu, lana txukun eta antolatuta egin al izateko; horregatik, gure lanerako lokala oso garrantzitsua da produktua lantzeko orduan. Bertan, langileen artean antolatuko gara eta denok leku berean lan egiteko aukera izango dugu.

Bestetik, taldekideek dauzkagun baliabide intelektualei ere etekina aterako diegu lanerako oso baliagarriak direlako. Langile bakoitzak bere gaitasun edo trebetasun propioak ditu eta hauei ahalik eta probetxu gehien aterako diegu, gero eta talde osatuagoa izateko, baita gure lanari erraztasuna emateko ere.

Esaterako, Maialenek langileekin harremanak mantentzeko eta adostasunera heltzeko duen erretzasunari probetxua aterako diogu, Leirek duen antolaketarako eta ordenerako trebetasunari etekina aterako diogu, baita Sarak bankuarekin harremanetan jartzeko duen abileziari ere, eta azkenik, Marak jendearekin harremanak izateko, ideia originalekin produktuak merkatura zabaltzeko eta jende aurrean hitz egiteko dituen gaitasunei ere.

Hauez gain, gure produktuaren produkzioa aurrera ateratzeko ezinbestekoa dugu beste langile batzuen lana enpresaren sortzaileen lanaz gain, alegia, giza baliabideak erabateko babesa izango dira guretzat. Adibidez, produktua sortzen lagunduko diguten langile gehiago edukiko ditugu, hau da ekoizpenean, baita garraioan lagunduko digutenak ere, talde lana antolatuko duen koordinatzailea, eta abar. Hauekin guztiekin, gure lana eramangarriagoa izango da eta emaitza hobekak lortuko ditugu denon artean.

Azkenik, finantza-baliabideak premiazkoak izango ditugu gure produktuaren ideia aurrera ateratzeko orduan; hain zuzen ere, gure enpresarekin hasi ahal izateko diru-laguntzetara jo beharko dugu eta bankuren bati esku

Ahorra 142,17€ domiciliando tu nómina

**509,66€**

Al mes durante: **2 años y 1 mes**

TIN: 5.60 % | TAE: 5.91 %

Comisión de apertura: **0 %**

Total a devolver, sumando capital, intereses y gastos: **12.801,54€**

- ✓ Con nómina domiciliada
- ✓ Con Cuenta BBVA

[Ver condiciones TAE](#)

**Solicita 12.000€**

bat botatzeko eskatuko diogu horretarako. Beraz, bankuari mailegu bat eskatuko diogu hasteko eta ondoren, ordaintzeko prest gaudenean, dirua itzuliko diegu pixkanaka. Mailegua eskatuko diogun bankua BBVA izango da eta honi, epeka ordaintzen joango gara. 12.000€ inguru eskatu ditugu laguntza moduan eta diru kantitate hau 2 urte eta hilabete batean ordaintzeko aurreikuspena daukagu, hilabetero 509,66€ ordainduz. Hala ere, aldaketaren bat egon liteke hilabete batzuetan; hau da, hilabeteren batean gehiago ordaintzeko prest balin bagaude diru-kantitate kopurua igo dezakegu, eta aldiz, beste kasuren batean ordaindu beharreko kantitatea ordaintzeko oso justu ikusten balin bagara, diru-kantitatea jeitsi dezakegu.